

HONDAKINEN minimizazioa

1

PRODUKTU IRAUNGI EDO EZ BEHARREZKOEN SORRERA MINIMIZATZEA

JARDUNBIDE EGOKIA	01	Zentralizatzea edo erosketa bateratzea, lehengai ahal denik eta hobekien eskuratzeko.
JARDUNBIDE EGOKIA	02	Trukatu lehengaiak irakaskuntza eta ikerkuntzarako unitateen artean: UPV/EHUREN LAB-TRUKE aplikazioa.
JARDUNBIDE EGOKIA	03	Egin inbentarioak aldian-aldian.
JARDUNBIDE EGOKIA	04	Lehengaiak erosteko prozeduretan, gehitu iraungikortasuna eta premiaren norainokoa bezalako aldagaiak.

2

LEHENGAI ONTZIEN SORRERA MINIMIZATZEA

JARDUNBIDE EGOKIA	05	Egin akordioak lehengaien hornitzaileekin, ontziak itzuli ahal izateko, berrerabiltzeko elementu gisa.
JARDUNBIDE EGOKIA	06	Hautatu hornitzaileei ontziak itzultzeko aukera eskaintzen duten produktuak.
JARDUNBIDE EGOKIA	07	Aukeratu tamaina handiago eta pisu arineneko ontziak dituzten produktuak.
JARDUNBIDE EGOKIA	08	Autogestionatu lehengai-ontziak, hondakinen ontziak berrerabiltzeko.

3

LEHENGAIEN KONTSUMOA MINIMIZATZEA

JARDUNBIDE EGOKIA	9	Berrikusi laborategiko prozedurak ingurumen jardunbide egokiak dauzkaten eta hobetu esperimendu eta/edo praktiken diseinu eta eskala.
JARDUNBIDE EGOKIA	10	Ezarri prozedurak, zehaztu ahal izateko nahaste bat noiz hartzen den hondakin arriskutsutzat.
JARDUNBIDE EGOKIA	11	Destilatu disolbatzaileak, berrerabili ahal izateko.
JARDUNBIDE EGOKIA	12	Berrerabili hondar korranteak beste esperimendu eta praktika batzuetan.
JARDUNBIDE EGOKIA	13	Laborategietarako ekipo eta instrumentuak erosterakoan, bihurtu aldagai hondakinen minimizazioa.

4

HONDAKIN ARRISKUTSUEN SORRERA MINIMIZATZEA

JARDUNBIDE EGOKIA	14	Aukeratu arrisku txikieneko lehengaiak.
JARDUNBIDE EGOKIA	15	Tratatu bertan hondakinak, hondakin ez arriskutsu gisa gestiona daitezten.
JARDUNBIDE EGOKIA	16	Minimizatu xurgatzaileen kontsumoa.

5

SENTSIBILIZAZIOA

JARDUNBIDE EGOKIA	17	Jakinarazi irakaskuntza eta ikerkuntza unitateei, bertan sortutako hondakinen kopurua eta honek dakartzan kostuak.
JARDUNBIDE EGOKIA	18	Galdegin hondakin arriskutsuen sorrera eta minimizazioari buruzko memoria egiteko.
JARDUNBIDE EGOKIA	19	Egin aitortza publikoa, norberaren hondakin arriskutsuak egiazki murriztea lortu duten irakaskuntza eta ikerkuntza unitateei.
JARDUNBIDE EGOKIA	20	Laborategietako arduradunen eta hondakinen kudeaketaren arduradunen berariazko sentsibilizazioa.
JARDUNBIDE EGOKIA	21	Osatu lan taldeak, unibertsitateko ikastegi bakoitzean hondakin arriskutsuak minimizatuko badira.
JARDUNBIDE EGOKIA	22	Sortu webgunean atal espezifiko bat, minimizaziorako jardunbide egokiak elkarri jakinarazi eta esperientziak trukatzeko.

Eskura ezazu jatorri kimikodun hondakin arriskutsuak minimizatzeko jardunbide egokien gidaliburu osoa jasotzen duen dokumentua.



Finantzatzailea:



KOSTUEN minimizazioa

6

GESTIO KOSTUEN MINIMIZAZIOA

JARDUNBIDE EGOKIA

23

Ezarri prozedura espezifiko bat, unitateko kostu gehieneko hondakinak erabili eta gestionatzeko.

JARDUNBIDE EGOKIA

24

Lehenetsi kostu txikiagoko hondakinak sortuko lituzketen lehengaiak.

Beharrezkoa al da disolbatzaile halogenatuak erabili eta/edo sortzea? Beren gestio kostua (850 € tonako) bost bider handiagoa da disolbatzaile ez halogenatuen kostua baino (160 € tonako). Arrisku txikieneko lehengaiak aukeratu

KONTSUMIGARRIEN (ONTZIEN) KOSTUA MINIMIZATZEA

7

JARDUNBIDE EGOKIA

25

Aukeratu ahal denik eta tamaina handien eta kostu txikieneko hondakinatarako ontziak.

JARDUNBIDE EGOKIA

26

Gestoreari eman aurretik, bete hondakin arriskutsuetarako ontziak.

Ezaugarri berberak izanik, 60 litrotako plastikozko bidoi batek 30 litrotako bidoi batek baino euro bat gehiago balio du, besterik ez: 13 € unitateko vs 12 € unitateko. Hauta itzazu ontzi handiak

BILKETA ETA GARRAIO KOSTUEN MINIMIZAZIOA

8

JARDUNBIDE EGOKIA

27

Murriztu hondakin bilketa kopurua, legeriak eskatzen duen kopurura iristeko: urtean bi bilketa.

JARDUNBIDE EGOKIA

28


Laburtu enpresa gestoreak bilketarako behar duen denbora.

Biltegitzeko toki espezifiko izanda, errazagoa da sortutako hondakinak eramateko bilketa kopurua murriztea eta horretan egindako denbora aurrezte. Bila ezazu zeure ikastegirako hautabiderik onena

Azken urte hauetan nabarmen hasi dira UPV/EHUko irakaskuntza eta ikerkuntza laborategietan sortutako jatorri kimikodun hondakin arriskutsuak.

2015, 2016 eta 2017an 60 tonatetik gora sortu ziren urtero eta, hauen bilakaerari begiratuta, aurreikus daiteke gorantz segituko dutela, hori ekiteko neurriak hartzen ez badira.

Horregatik, **Iraunkortasuneko zuzendaritzak**, UPV/EHU hondakin arriskutsuen gestioaren ardura duelarik, eta IHOBE Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak **hondakinak minimizatzeke potentziala** aztertu dute eta zenbait **jardunbide egoki** identifikatu dute, hondakin bilakaerari buelta eman eta aurrera egiteko, Europar Batasunaren aginduak hobekien beteko baditugu. Honako liburuxka honetan aurkezten dira.



Hondakin arriskutsuen minimizazioari esker, murriztu nahi dira sortzen diren hondakin kantitatea eta arriskua, beti ere, maila ekonomiko eta teknikoki egingarrietan, antolakuntzaren eta eraginkortasunaren arloko neurriak hartuz, hondakin tratamendua edo azken ezabatzea ekiditearren.

Minimizazio lortzeko, murrizpena, berrerabilera eta sorburuko birziklatzera sustatzeko neurriak hartu eta abiatu behar dira, sortzen ditugun hondakin kantitatea edo/eta arriskua murrizteko.



emari ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HONDAKIN KIMIKOEN MINIMIZAZIOA JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritza 2018

www.ehu.eus